

Arestiren oihartzun garaikidea ikertu du Asier Amezagak

Bilboko Udalaren Unanimo Saiakera Sariaren izakio edizioa irabazteak ireki dio Asier Amezagari «Inor ez delako profeta bere mendea. Ga-

briel Aresti egunean» (Erein) saiakera idazteko atea. Bere olerkien bidez Aresti egun «nola gorpuzten den» ikertu nahi izan du.

Amalur ARTOLA | DONOSTIA

«Inor ez da / profeta / bere mendea» utzi zuen idatzia Gabriel Arestik, eta poema labur huraxe baliatu du Asier Amezaga soziologoak Bilboko Udalaren Unanimo XVIII. Saiakera Saria irabazita idatzi ahal izan duen saiakera osatzeko. Idazle eta poeta bilbotarraren irudira eta obrara begirada garaikidetik hurreratzeko den lana da «Inor ez delako profeta bere mendea. Gabriel Aresti egunean» (Erein). «Liburua ariketa bat da, nolabait jolas bat. Aresti eta bere poemen bila aritu naiz eta euskal gizartearen gaur egungo ikuspegi bat ematen ahailegindu naiz, ziurtatu zuen Amezagak liburuaren aurkezpenean.

Zehazki, bost ataletan banatuta, bere poemen bidez Arestik gaur egun duen proiektzioa dago lanaren oinarrian, «madarikatua, espainolista eta komunista izatetik totemiko bilakatzer» nola iritsi den agertzeko. Horre-

tarako, poeta bilbotarrak eta bere obrak egun espazio publikoan betetzen duten lekua hartu du ikerketaren abiaburutzat. Esaterako, saiakerari hasiera Bilboko Arriaga antzokian Arestiren omenez egin zen ikuskizun batek ematen dio eta amaiera, aldiz, Bilboko Aste Nagusiko txupinazoan Kirmen Uribe idazle ondarroarrak «Egun da Santi Mamiña» oinarri hartuta egin zuen bertsioarekin.

Denboran atzera eta aurrera eginez, Amezagak zenbait gertakari garaikide eta Arestiren irudia edota obra nola harilkatu diren eta espazioaren eta denboraren arabera hartu dituen esanahiak aztertu ditu. Besteren artean, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena, «Euskaldunon Egunkaria»-ren itxiera, Guggenheim museoren sorrera eta Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarra hartu ditu ikerketagai, baita Euskal Rock Erradikala deituan Arestik bete zuen lekua ere. Adibiderik

TESTUINGURUA

«Nire aitaren etxea' errepikatu izan da hainbatetan, baina segun noiz eta nola eman den, esanahi bat edo beste izan dezake. Nik poemak nola gorpuzten diren, nola biziartzat den Aresti ikertu nahi izan dut, nabarmendu zuen Amezagak.

ere jarri zuen: «Nire aitaren etxea' errepikatu izan da hainbatetan, baina segun noiz eta nola eman den, esanahi bat edo beste izan zezakeen. Nik poemak nola gorpuzten diren, nola biziartzat den Aresti ikertu nahi izan dut», nabarmendu zuen soziologoak.

Zentzu horretan, Arestiren obrarekiko «leialtasuna» ere

izan zuen hizpide: «Totema den neurrian, leialtasunaren zera hori konplexua da. Zein da 'Nire aitaren etxea'-ren interpretazio leiala? Errepikatu ahala hartzen ditu zentzu berriak. Guztiz letra-egokitu bagina, ez genuke Arestiz hitz egingo».

Orain Aresti goratzen duten askok aurretik «egurtu» egin zutela ere ekarri zuen gogora, eta ildo beretik hitz egin zuen Erein-eko editore Iñaki Aldekoak ere (Arestiren gaineko tesia egin zuen berak ere): «Oso presente ditugu egurkada haiek eta egun badago garai hartakoak biguntzeko joera. Totem-a izateko, hala behar du. Urteak aldatu ahala ezinbestean diskurtsoak ere aldatu egiten dira. 'Harri eta herri'-ko 'Nire aitaren etxea'-n denak kabitzen ginen, baina Euskal Herrian ez genekien oso ondo zeintzuk kabitzen ginen eta zeintzuk ez. Lubaki batean denak anti-frankistak ginen, baina gerra txikietan denok ez ginen bando berekoak».

**Ernest Lluch
estará cerrado
hasta comienzos
de 2019**

Debido a las obras de remodelación del estadio de Anoeta, el centro cultural Ernest Lluch permanecerá cerrado hasta comienzos de 2019. Los trabajos que deben acometerse exigen tomar esta medida de urgencia para garantizar la seguridad, precisan desde Donostia Kultura.

**Donostian
aurkitutako
tinak ikusgai
Gordailuan**


Gordailua zentroak atek zabalduko ditu etzi, Donostian aurkitutako tinak erakusteko. Paleontologiako piezak ere ikusi ahal izango dira «Buruhezur kaskagorrorak» izeneko bisitan. Interesatuak izena emateko 943 555 520 telefonora deitu edo gordailua@gipuzkoa.eus helbidera idatzi.

**Liburuka,
programa para
fomentar la
lectura**

Donostia Kultura ha presentado Liburuka, el proyecto de fomento de la lectura, que ha empezado a programarse en el curso 2018-2019 en colaboración con 22 centros escolares de Donostia. Además de los centros también se cuenta con la colaboración de Galtzagorri Elkarte.

**Joanes Mathiuet
presenta hoy
«Entre el Cielo y
la Tierra»**

El donostiarra Joanes Mathiuet presenta hoy a partir de las 18.30 en la librería Elkar de Donostia su primera novela, «Entre el Cielo y la Tierra». Según relata el autor, el libro narra la experiencia vital de un joven que se ve obligado a viajar a un país árabe, donde descubre un mundo hasta entonces desconocido para él.



Iaz Unanimo saiakera saria irabazita gauzatu du Asier Amezagak Arestiren gaineko ikerketa.

Juan Carlos RUIZ | FOKU